

aktibatE!

Gure enpresaren izenak adierazten duen bezala, gure helburu nagusia hainbat arrazoiengatik baztertuta dauden haur eta gazteak aktibatzea eta animatzea da, eskolaz kanpoko aktibitateen bitartez. Desgaitasuna duten haurrentzat egokitutako zentro bat sortzeko ideia nahiko berria da, eta gure gizartean ikusi dugun premia betetzen du.



Enpresa askok eskolaz kanpoko jarduerak eskaintzen dituzte, baina jarduera horiek arautik ateratzen ez direnentzat baino ez daude pentsatuta. Arrazoi horregatik, poblazioaren portzio hari bideratuta dagoen enpresa bat sortzea erabaki dugu. Zehazki, urritasun motaren bat duten sei eta hamasei urte bitarteko haurrak dituzten familiei zuzenduta .

Gure enpresan, gardentasuna eta familiekin komunikazioa oso serio hartzen dira, horregatik arreta telefonoz zein sare sozialen bidez eskaintzen dugu. Familiek momentu guztietan informatuta egon daitezten.

Gainera, ikasleen adinari egokitutako jarduerak egiteko ordutegiak eta egunak eskaintzen ditu, eta gure prezioak aukera ematen digu familia gehienentzat eskuragarri egoteko.

HORARIO/ORDUTEGIA

AKTIBATE!

HORA/ORDUA	LUNES/ ASTELEHENA	MARTES/ ASTEARTEA	MIÉRCOLES/ ASTEAZKENA	JUEVES/ OSTEGUNA	VIERNES/ OSTIRALA	LARUNBATA JATDUERA BEREZIAK
16:00-18:00	FUTBOLA	BOCCIA	FUTBOLA	MUSIKA: TXIRULA	FUTBOLA	
17:30-19:00	MUSIKA:PIANO	MUSIKA: GITARRA	ERLAXAZIOA	BOCCIA	MUSIKA: PIANO	
18:00-19:30	YOGA	ATLETISMO	BOCCIA	MUSIKA: PIANO	ATLETISMO	
18:00-19:00	ATLETISMO	ERLAXAZIOA	ATLETISMOA	YOGA	YOGA	



Enpresa finantzatzeko orduan, pertsona bakoitzeko 1.000ko bazkideen lankidetzaz eta banku-maileguez gain, Eusko Jaurlaritzaren eta Erandioko Udalaren laguntzak izango ditugu.

Enpresaren gastu nagusiak langileen soldata eta lokalaren alokairua izango dira. Baina ez dira bakarrak, oinarrizko zerbitzuak ere ordaindu behar ditugu, hala nola ura, argia eta abar.

Aukeratu dugun forma juridikoa sozietate mugatua da, gure negozioaren beharretara gehien egokitzen dena baita gainera sozietate mota honek sortzeko eskatzen diren baldintza guztiak betetzen dugu .